

Año 2022. urtea

N.º 34. zk.



TRABAJOS DE ARQUEOLOGÍA NAVARRA

SEPARATA

Artziko aztarnategia (Artzibar/valle de Arce): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena

Oihane Mendizabal Sandonís, Eder Martinez de Miguel,
Juan Mari Martinez Txoperena, Rafa Zubiria Mujika, Javier Uriz Monaut,
Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon

Sumario / Aurkibidea

Trabajos de Arqueología Navarra

Año 2022. urtea - N.º 34. zk.

ARTÍCULOS / ARTIKULUAK

- Metalurgia de la Edad del Bronce en las Bardenas Reales (Navarra).
Análisis de materiales y primera aproximación experimental**
Alberto Obón Zúñiga, Héctor Conget Vicente, Andrés García-Arilla Oliver 13
-
- Actuación arqueológica en el Cerro del Romero *Kaiskata/Cascantum* (Cascante, Navarra)**
Marta Gómara Miramón, Ángel Santos Horneros, Óscar Bonilla Santander,
Miriam Pérez Aranda 47
-

NOTICIAS / BERRIAK

- Intervención arqueológica en el yacimiento de Resa (Andosilla)**
Josu Narbarte, Mattin Aiestaran, Aitor Pescador, Eneko Iriarte, Oihane Mendizabal Sandonís,
Euken Alonso, Carlos García, Juantxo Agirre Mauleon 69
-
- Prospección de cuevas en el valle del Araxes (Araitz-Betelu, Navarra). Campaña de 2022**
Jesus Tapia Sagarna 77
-
- Arqueología en el yacimiento de Irulegi (Valle de Aranguren) 2022**
Mattin Aiestaran, Daniel Ruiz-Gonzalez, Eneko Iriarte, Jesús Sesma, Jesús García,
Jose Antonio Mujika-Alustiza, Juantxo Agirre-Mauleon 91
-
- Artziko aztarnategia (Artzibar/valle de Arce): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena**
Oihane Mendizabal Sandonís, Eder Martinez de Miguel, Juan Mari Martinez Txoperena,
Rafa Zubiria Mujika, Javier Uriz Monaut, Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon 99
-
- Cerco de Artajona. Actuaciones en el frente norte en 2022**
Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz 107
-
- II campaña arqueológica. Ermita de San Cristóbal (concejo de Artica 2022)**
Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona 115
-

Sumario / Aurkibidea

Zalduako aztarnategia (Auritz/Burguete): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena Oihane Mendizabal Sandonís, Leire Arana Ojanguren, Eder Martinez de Miguel, Juan Mari Martinez Txoperena, Rafa Zubiria Mujika, Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon	123
Pueblo Viejo de Caparroso, campaña de 2022 Carlos Zuza Astiz, Nicolás Zuazúa Wegener	131
Trabajos arqueológicos en <i>villa</i> romana de Picordero I (Cascante, Navarra). En las campañas de 2021 y 2022 Marta Gómara Miramón, Óscar Bonilla Santander, Ángel Santos Horneros, Miriam Pérez Aranda, Alicia María Izquierdo	139
IV campaña de excavación en el yacimiento romano de «El Plantío» de Corella (Navarra). 2022 Juan José Bienes Calvo, Óscar Sola Torres	149
El foro de la ciudad romana de Santa Criz de Eslava: sondeos de 2022 Paloma Lorente Sebastián, Luis Romero Novella, Luka García de la Barrera	157
2022. Real fundición de municiones de Eugi: la energía del agua Francisco Labé Valenzuela, Ana Carmen Sánchez Delgado	165
I Campaña arqueológica. Castillo de Funes Iñaki Sagredo Garde, Julen Azcona, Jon Sagredo Alonso	171
IV Campaña en Larraga. Consolidación y puesta en valor del yacimiento Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Garde, Julen Azkona	179
Prospección arqueológica de las cuevas del valle de Larraun (Navarra), campaña 2022 Jesus Tapia Sagarna	191
Torre de San Gregorio (Lumbier). 2022. II campaña de excavaciones Francisco Labé Valenzuela	201
Metodología de la documentación y reconstrucción 3D del patrimonio arqueológico: el caso de El Castillar (Mendavia) Leyre Arróniz Pamplona, Daniel Pérez Legido, Xavier Bayer Rodríguez, Clara Calvo Hernández, Héctor J. Fonseca de la Torre	209
Consolidación del aljibe de Garaño y otras estructuras. Campaña 2022 Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona	217
Ermita de la Virgen del Pero (Peralta / Azkoien). Campaña arqueológica del 2022 Nerea Soto Úriz, Rosario Mateo Pérez	229
Intervención arqueológica en la necrópolis islámica de Ribaforada (Navarra), campaña 2022. (Excavación en calle Príncipe de Viana, 18-20) Óscar Sola Torres, Nerea Soto Úriz	237

Sumario / Aurkibidea

Castillo de Santacara, campañas de 2022	
Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz, Imanol Martínez Santamaría	243
Investigación y puesta en valor del castillo de Guerga. Unzué/Untzue. Año 2022	
Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona	253
Excavación arqueológica en el castillo de Valtierra. Campaña 2022	
Juan José Bienes Calvo, Óscar Sola Torres, Jesús Lorenzo Jiménez	267
Investigación arqueológica del yacimiento La Custodia (Viana). Campaña de 2022	
Javier Armendáriz Martija	275
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak /	
Rules for the submission of originals	287

Artziko aztarnategia (Artzibar/Valle de Arce): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena

Yacimiento de Artzi (Artzibar/Valle de Arce): resumen de los resultados de la campaña de 2022

Site of Artzi (Artzibar/Valle de Arce): summary of the results of the 2022 campaign

Oihane Mendizabal Sandonís
Aranzadi Zientzia Elkartea. UPV/EHU
omendizabal@aranzadi.eus
<https://orcid.org/0000-0001-6337-6345>

Eder Martinez de Miguel
Aranzadi Zientzia Elkartea

Juan Mari Martinez Txoperena
Aranzadi Zientzia Elkartea

Rafa Zubiria Mujika
Aranzadi Zientzia Elkartea

Javier Uriz Monaut
Aranzadi Zientzia Elkartea

Ekhine Gartzia Gartzia
Aranzadi Zientzia Elkartea. SOT Prospecció Arqueològica

Juantxo Agirre Mauleon
Aranzadi Zientzia Elkartea

DOI: <https://doi.org/10.35462/tan34.6>

LABURPENA

Honako argitalpen honetan 2022. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteko lantaldeak Artziko aztarnategian burututako kanpaina arkeologikoaren berri ematea du helburu. Indusketak termen erai-kinean zentratu dira, haren ipar eta hegoetako muturretako guneetan, hain zuzen. Ipar sektorean labean eta ziurrenik haren funtzionamenduari lotutako eremuan eskuhartu da. Hegoaldean, aldiz, eraikinaren sarreran kokatutako gela eta bere hegoaldean kokatutako eremu luze eta estuan.

Gako hitzak: erromatar garaia; prepirinioa; termagunea; metalurgia labea.

RESUMEN

La próxima publicación tiene como objetivo resumir la campaña arqueológica realizada en 2022, llevada a cabo por el equipo de trabajo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Las excavaciones se han ejecutado en el interior del complejo termal, en las estancias de sus dos extremos, más concretamente. En el sector norte se ha intervenido el área del horno y una estancia contigua que estaría vinculada a dicha estructura. Al sur, en cambio, se ha profundizado la zona de la entrada a la construcción y un espacio estrecho y alargado situada justo al sur.

Palabras clave: periodo romano; prepirineo; complejo termal; horno metalúrgico.

ABSTRACT

The next publication aims to summarise the archaeological campaign carried out in 2022 by the Aranzadi Science Society's team. The excavations were done inside the thermal complex, more specifically in the northern and southern areas. In the north sector, work was carried out in the area of the furnace and an adjoining room that would have been linked to this structure. Besides, in the south, were excavated the area of the entrance to the construction and a narrow long space located just to the south.

Keywords: roman period; prepyrenean area; thermal complex; metallurgical furnace.

1. SARRERA. 2. ARTZIKO 2022KO KANPAINA. 2.1. Hegoaldeko sektoreko eskuhartzea. 2.2. Iparraldeko sektoreko eskuhartzea. 3. ONDORIOAK. 4. BIBLIOGRAFIA.

1. SARRERA

Artziko aztarnategi arkeologikoa Urrobi ibaiaren erdi ibilguaren ertzean kokatuta dago, trantsizio gune batean orografiaren, klimaren eta, ondorioz, paisaiaren ikuspegiari dagokionez. Harana, iparralderantz joan ahala, altueran igotzen doa, eta, era berean, arroa estutu egiten da. Aztarnategia 595 m inguruko altitudetan dago, ibaiaren mendebaldeko ertzertantz zertxobait inklinatuta dagoen terraza batean, Izurtzu mendia- ren magalean. Gaur egun, aztarnen gehien- goa dokumentatu den parajeari El Soto toponimoa dagokio, baina inguruaren erre- ferentziazko izena Artzi/Arce jaurerria izan- go da, haran osoari izena ematen dion tokia, hain zuzen. Gaur egungo Nagore eta Zan- dueta herrien artean kokatutako eremua da, Itoizko atzealde-urtegiaren ertzean (1. iru- dia). Leku honek Erdi Arotik aurrera izan- zuen garrantzia gorabehera, gaur egun bere eraikinetako batzuk baino ez dira manten- tzen, hala nola Santa Maria de Arce ermita erromanikoa, berritzen ari diren jauregia,

eta beste bi etxeren hondarrak eta nekazari- tza eta abeltzaintzarako itxiturak (Iribarren et al., 2019, 79-83. or.).

Beste gune batzuekin gertatu bezala, az- tarnategiaren aurkikuntza estu-estu lotuta egon zen inguru hau iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen galtzadaren ikerketarekin. Kasu honetan 2003. urtean egin zen balizko gunearen aurkikuntza, NA-2040 eraikitze- ko lanak hasi ziren urtean (Itoizko atzealde-urte- gia eraikitzearen ondorioz inguruko errepide nagusietako bat). Testuinguru horretan Juan Mari Martinez Txoperenak, bertako iker- tzaile eta Aranzadi Zientzia Elkarte-ko kideak, erromatar garaiko aztarnategi baten zantzuak ziruditen lehen aztarnak identifikatu zituen. Zehazki, erromatarren garaiko zeramika zati batzuk topatu zituen eta, ondorioz, gunea iker- keta sakonago baten abiapuntu izan zen. Hori horrela, Aranzadi Zientzia Elkarteak lehen zundaketa arkeologikoak egin zituen 2012an, eta zeramika, metal eta beira erromatarren material ugari dokumentatu ziren arren, ezin izan zen eraikuntza-egiturarik identifikatu



1. Iruña. Inguruaren gaur egungo dron irudia, goialdean Itoitzeko atzealde-urtegia eta Artziko jaurerria, erdian NA-2040 errepidea eta behealdean termen eraikinaren aztarnak. Egilea: R. Gaita.

(García-García 2017, 74. or.; Mendizabal Sandoñís et al., 2021, 239. or.).

Beraz, inguru horretan erromatar kokaleku bat egon zitekeen susmoetan, 2014tik aurrera ikerketa geofisikoei ekin zitzaion, 2012an induskatutako zundaketaren inguruan. Miaketa horiei esker, inguru horretan lehenik oinplanta laukizuzeneko eraikin bat identifikatu zen (García-García, 2017, 232-240. or.). 2017an, miaketa magnetikoaren eta georradarraren azalera handitu, eta gutxienez beste hiru eraikuntza-multzo deskribatu ahal izan ziren termen eraikinetik gertu (García-García et al., 2017). Multzo bakoitzean zundaketa arkeo-

logiko bat egin zen, eta horrek berretsi zuen erromatarren garaian behintzat erabili ziren azpiegiturak izan zirela. Hortaz, aztarnategiaren hedadura gutxienez hektarea batekoa zela ondorioztatu zen (Mendizabal Sandoñís et al., 2021, 240. or.), betiere ordura arte zehatutako muga horretatik haratago aztarna gehiago egon zitezkeela baztertu gabe.

2. ARTZIKO 2022KO KANPAINA

2022ko eskuhartzeko honetako helburu nagusia 2015an hasitako termen eraikinaren indusketa amaitzea izan da. Horretarako, bi

sektoretako sekuentzia estratigrafikoa agortzea falta zen, batetik ipar muturreko lehen bi espazioak eta bestetik, hego muturreko beste biak. Jakitun gara eraikinaren ekialdera jarraipena duten bi horma indusketa eremutik harago zabaltzen direla, baina hala ere guztiz ere ertz hori etorkizunerako uztea adostu da.

2.1. Hegoaldeko sektoreko eskuhartzea

Hori horrela, hegoaldeko sektorean, [908] paretaz banandutako bi eremu izan dira eskuhartutakoak. Lehen guneari dagokionez, 5,5m x 0,7m-koa da eta bertan [1001] geruzaren indusketarekin jarraitu da, ahalik eta 594,193m-ko kotan, tamaina handiko errekarriak [1110] espazio ia osoa bete eta bi paretan azpitik jarraitzen zutela egiaztatu arte. Ziur asko, tamaina handiko harri pilaketa horrek eraikuntzaren zimenduak finkatzeko eta drainatzeko funtzioa beteko luke, beste gela batzuetan identifikatutako antzeko metaketen antzera. Ondorioz, espazio hori mugatzen duen [911] horma eraikuntza termalari lotuta egon litekela iradokiko luke, gainerako eremuekin batera estratigrafia partekatzen baitu.

Bigarren gelan ostera, aurreko urtean industen hasitako [1002] unitatearekin jarraitu zen, gunearien hegoaldeko eremuan. Haren azpian [1109] unitatearekin identifikatutako egitura dokumentatu zen, 4,8m x 0,9m neurriko kanal itxurakoa eta gutxi landutako harri ertainez mugatua alde banatan. Bere barnean topatutako sedimentua [1002]-koa baina zertxobait ilunagoa zen eta inklusio gutxiago zituen. Gelaren mendebaldeko ertzean indusketa-mugatit harago jarraitzen duela dirudi, eta kontrako aldean, berriz, [908] hormaren azpitik jarraitutasuna izan lezakela susmatzen da. Beraz, orain arteko datuen arabera, egitura estu eta luze horren interpretazioa mendiko magaletik iritsi zitezkeen uraren drainatze- edo hustubide-kanal baten funtzioak betetzea izango litzateke.

2.2. Iparraldeko sektoreko eskuhartzea

Bestalde, eraikinaren beste muturrean, 2021eko kanpainan bistaratutako kanal itxurako egituraren eskuhartzeari ekin zitzaion. [1008] unitatez izendatua gutxi landutako harriz osatua zegoen, mortairurik gabe eta kokatuta zegoen gela ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuen. Behin dokumentatuta, harriak altxatu eta jarraipen zantzurik ez zuela erregistratu zen, hau da, ez inolako prestakuntza-mailarik, ezta lotutako inolako eraikuntza-estratigafiarik ere. Hortaz, argitalpen hau idazteko unean, ez dakigu labeari lotutako funtzioaren bat ala bestelako eginkizunen bat beteko lukeen. Nolanahi ere azpian, 594,596m-ko kotara buztin lohitsuena maila ilunagoa agertu zen, goiko mailak baino trinkotasun txikiagokoa eta karezko eta ikatzezko mortero ugariarekin [1013]. Itxuraz, [1008] kendu ondoren, [1104] geruzak [1013] geruzaren oso antzeko ezaugarriak zituela egiaztatu ahal izan zen.

Geruza hori kendu ondoren, buztin lohizko eta kolore marroi horixkako betekin oso trinko bat agertu zen, labearien oinarritzko maila gorritua inguratzen zuena. Induskatu ahala, kolore grisagoa zuten eremu batzuk agertzen ziren, baina, ziurrenik, luraren sedimentu geologikoaren berezkotzat hartu ziren. Segur aski eraikuntzaren zimenduak eraikitzeke egindako terrazaren parte izan liteke, eraikuntzari eutsiko zioten hormak [1006] haren gainean eraikiak baitaude. Hipotesi hori egiaztatzeke kota zertxobait gehiago jaistean, jatorrizko geruza geologiko erregistratu ahal izan zen [1111], bai labearien gelan baita iparralderago kokatuan ere. Beraz, behin maila horretara iritsita eremu horietako sekuentzia arkeologikoa amaitutzat eman zen.

Labearien egiturari dagokionez, 2022ko kanpainan egindako indusketetan egiaztatu ahal izan zen eta haren [1112] laukizuzen formako oinarria azaleratu, 2,3m x 1m-ko neurriduna.



2. Irudia. Labearen oinarriaren egituraren argazkia indusketaren amaieran. Egilea: O. Mendizabal.

Egitura gutxi landutako hareharrizko blokez osatuta zegoen, eta gorritasun zantzu nabarmenak zituen inguruan, batez ere gelaren hegoaldeko inguruan (2. irudia). Ekialdeko azaleran metalezko hondarrez osatutako geruza bat mantentzen zen oraindik, metalurgia-lanen azken labekadaren arrastoak, seguru asko. Gainera, bere perimetro osoaren inguruan, erreka-harri txikiz osatutako geruza fin bat dokumentatu ahal izan da [1113]. Era berean, gaineko mailetan identifikatutako testuinguru errubefaktatuen kokapenarekin bat zetorren kanal itxurako egitura luzangaren oinarria ere dokumentatu zen, hurrengo gelako iparraldean topatutako egitura gorriarekin zentratuta, hain zuzen ere.

Amaitzeko, iparraldeko muturrean kokatutako gelaxkan, 2021ko kanpainan identifikatutako [1009] mailatik abiatu zen indusketa. Geruzak kolore marroi argiagoa eta material arkeologikoen dentsitate txikiagoarengatik bereizten ziren, goragoko kotetan topatutako mailekin alderatuta. Geruza hori lurraren azalratze geologikoaren identifikazioaren amaitu zen, eta 594,296m-kotan, hain zuzen.

3. ONDORIOAK

Hori horrela, 2022ko kanpainarekin Artzi-ko termen mugaketa eta indusketa ia guztiz osatua gelditzen da, ekialdeko eremua salbu.

Horri esker, eraikinaren neurriak 26 m x 5,5-ko oinplanta zuela egiaztatzea lortu da, baita 7 gela edo espaziotan banatua egon zela ere, geofisikak eskainitako emaitzak eguneratzeko aukera emanez. Ondorioz, termen erabiltzaileen zirkuitu lineal bateko joan eta etorriko ibilbidea egiteko aukera izango lukete ezaugarri desberdinetako lau eremutan barrena eta gainontzeko guneak azpiegituren mantentura zuzenduta egongo ziren (Mendizabal Sardonís et al., 2021, 242. or.; 2022, 118. or.). Eredu hau Pirinioak zeharkatzen dituen galtzadako Donazaharreko aztarnategian topatutako jatorrizkoaren bera da. Bi eraikinen kronologiak antzekoak dira, K.o. I lehen laurdenean abiatu eta K.o. II. mendera arte mantenduko baitziren martxan, ondoren abandonatuak izateko (Bouet & Tobie, 2003). Beraz, mendilerroaren alde banatan, hastapenetan behintzat, bi eraikuntzen amankomuneko ezaugarriak partekatzen dutela nabarmendu liteke, ziur aski antolakuntza bateratu baten ondorio izanik.

Hala ere, badirudi denborak aurrera egin ahala termen eraikinen garapena bereizi egiten dela, izan ere Artzikoaren kasuan metalaren ekoizpenarekin lotutako norabidea hartu baitzuen. Badirudi, gaur egun arte ditugun datuen erabilera, jarduera hori III. mendearen erdialdetik aurrera hasi eta IV. mendearen lehen erdiraino gauzatu zela. Jarduera honekin lotutako mailak soilik iparralderen kokatutako hiru estantzietan identifikatu dira, gainontzeko guneetan, soilik lehen fasearen eta haren abandonuaren zantzuak erregistratuz. Hortaz, egituraren iparraldeko zatiak jarraituko zuen soilik erabilera, ziur aski ezinbesteko egokitzen lanak egin osten.

4. BIBLIOGRAFIA

Bouet, A. & Tobie, J. L. (2003). Les thermes d'Imus Pyrenaeus (Saint-Jean-le-Vieux, Pyrénées Atlantiques). *Aquitania*, 19, 155-179. <https://doi.org/10.3406/aquit.2003.1354>

Garcia-Garcia, E. (2017). *Geofisika tekniken karakterizazioa Euskal Herriko Antzinaroko aztarnategi arkeologikoetan* (doktore tesia). EHU/UPV.

Garcia-Garcia, E., Sala Bartroli, R. & Ortiz-Quintana, H. (2017). *Prospección geofísica del subsuelo del yacimiento romano de Arce. Presa de cola del embalse de Itoiz en el río Urrobi. T.M. de Valle de Arce (Navarra)*. Sociedad de Ciencias Aranzadi & SOT Prospección Arqueológica. Argitaratu gabeko txostena.

Iribarren Larrea M.^a T., Larrea Irigoien C. & López-Mugartza Iriarte (koord.). (2019). *Artzibarko etxeak / Las casas del Valle de Arce*. Artzibarko Udala / Ayuntamiento del Valle de Arce.

Mendizabal Sardonís, O., Garcia-Garcia, E., Martínez Txoperena, J. M., Zubiria, R. & Agirre Mauleon, J. (2021). Artziko aztarnategi erromatarra: 2020ko indusketa kanpaina. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 31-32, 237-244. <https://doi.org/10.35462/TAN31-32.11>

Mendizabal Sardonís, O., Garcia Garcia, E., Martínez Txoperena, J. M., Zubiria Mujika, R. & Agirre Mauleon, J. (2022). Yacimiento arqueológico de Artzi: campaña de excavación de 2021. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 33, 113-119. <https://doi.org/10.35462/TAN33.10>